



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

## 2. Hausnarketa lantzen elkarrizketa kooperatiboaren bidez

Haur filosofia metodologiaren oinarriko formazioa da. Elkarrizketa argudiatu kooperatiboaren bidez, hausnarketarako gogoia eta gaitasuna sustatu nahi dugu ikasleengan, eta horretarako baliabideak eta jakintzak eskainiko ditugu. Ikasleentzat interesgarriak diren galderetatik abiatuta, komunitatean eta ludikotasunetik, gaietan sakontzen laguntzea da gidariaren lana. Hori egiteko oinarri teorikoa, estrategiak eta materialak ematea izango da helburua.



Gelan elkarrizketa argudiatu kooperatiboa eta hausnarketa sustatu nahi duen edozein irakasleri zuzendutako formazioa izanik, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Filosofian zentratzen da bereziki.



Formazio teoriko-praktikoa. Alderdi teorikoan oinarri teoriko-pedagogikoak, materialak, programak eta estrategiak landuko dira. Alderdi praktikoan lehenengo guk gidatuko ditugu saioak, eta gero parte-hartzaileek tutorizatutako saio labur batzuk prestatu eta garatuko dituzte.

### LANDUKO DIREN GAIAK

- Oinarri teoriko-pedagogikoak
- Materialak eta programak
- Estrategiak
- Gidatutako saioak parte-hartzaileek haur filosofia zer den bizi dezaten.
- Parte-hartzaileek tutorizatutako saio labur batzuk prestatu eta garatuko dira.



### **Imanol Alvarez eta Garikoitz Moya**

Filosofiako eta Haur Hezkuntzako irakasleak

Eman izena

